

— «Tira, epertxo! — dira  
Ik soiñu bat dok betiko,  
Ta didar ori. dei ertun ori,  
Etxatak bape gogoko».

— «Zer txarrik ete dagiot, jauna,  
— darantzutso leun eperrak —  
Zirkillu ontan askatu arren  
Ene barneko sugarrak?»

— «Bai, egia dok; askeak gozak;  
Bakotxak nai dauna yagik.  
Baiña ik, lendik be, tint zinkulinka,  
Kezkaz naukak, gogaiturik».

— «Zelan daiteke ori? Ni gaur naz  
Araba-lautik etorri;  
Nik ez dautzut gaur arta, bein bere,  
Emen zankorik ezarri».

— «I ez ba'ntzan be, iretarrak bai  
Izango zoazan ziur —.  
Eta, zast! mokoz lepazurra ausiz  
Eperra zan aren zintzur.

Erru bageak zenbaten dozuz  
Era onetan zeetuak,  
Indar zakarra ta guzur motza  
Dirala euren Jainkuak.

### Igotz

## AIZEA, URA TA LOTSEA

Iru adiskide min  
munduan ei ziran,  
aizea, ura ta lotsa;  
izpiño bi lez beti  
alkarraz ebiltzan.

Arrats batz, alan be,  
—noiz, zelar, nok jakin?  
aizea ta ura bisk  
lagun barik zelar  
ziran alkarrrekin.

Aizeak ots: —«Nun dogu  
adiakide lotsa?»  
—«Ex dakit nun dan»;  
—«Guazen bere billa  
Ete aren otsa...?»

Aizeak zoli-zoli

Oiz tontor garaia  
ta trokak dauz araka;  
ura, ibar zokos zoko  
luzaro da saia.

Adur gaiztoz egunik  
len-ekifialdia,  
aizeak urari ben:  
—«Ezer bai?» —«Ex, ba, maite»;  
—«Ikus daigun goia».

Aizeak ba-eban goi  
naikoa istillurik;  
ura bi andik dabil,  
laiko mee ta otoi iñun,  
ete dan aztarnik.

Atzenez, nekatuta,  
urak aizeari:  
—Ait, aurkitu al dozu  
gure laguna? —«Ex dot  
ezer be nabaris».  
—«Garbai bizitan, kutun,  
daukagu biotza».  
Baino aren atz-izpirik  
ez daurkigun ezkero,  
alperrik gabiltza...»

Lotsa gal ezkerro,  
geigo nok idoro?

Igotz

### ERLEA TA ERLEROA

Orma gerizan, euzki begira.  
Arte ta arkariz gordea,  
erriauntza dago — enbor zakarra—  
Erie langillez betea.

Ezikuntz stean — ezkerrerantza—  
Mamo bi dagoz katramil,  
zer darabilien jakin naiean  
Ara eldu naz oin-ixil.

Zrietegia beti izan yatzu  
Lan-irrikaren eredu;  
Baixa ba-dozuz an be alperrak  
Liztor, ero, kulumiru.

—«Zergaitik, baixa, nozue jaurtzen?—  
—Oinua estu ernagi—.  
Zergaitik, esan, laga bear nik  
Guztiona dan jauregi?  
Zer txarrik egin ete yonat nik?  
Iñor il? Ezer ebatsi?»

—«Iñ, egia dok, —jalki erleak—.  
Ex dok iñor il; ez ostu;  
Baixa onik be, egin dok ezer?  
Eztertan dauskuk lagundu?  
Iñen gabitzak izerdi-jasaz,  
Lanari bultza eziñik;  
Iñarriz beti, epel-zerpela,  
Eren oratu barik».